

ARGIAk multimedia 2.0 mundura egin du salto


1997ko azaroaren amaiera zen eta ARGIA astekariko edukiak Internet zeritzon asmakizun horretara igo ziren. 10 urte baino ez dira igaro harrezkero, baina euskal prentsaren dekanook erronka berriei egin behar izan die aurre, zituen eduki gehienak sarean jarri lehendabizi eta kazetaritza molde berrietara egokituz ondoren. Hala, otsailaren 23an estreinatuko den ARGIA astekariaren on-line bertsioak multimedia elementuak txertatuko ditu eta 2.0 izango da. Hau da, askoz ere parte hartzaileagoa.

ELISABETH POMBO

“**ENTERATU** zaitez zer den Internet”, esan zion duela 10 urte ARGIAko zuzendariak teknologia berrietan aditua zen enpresako langileari. Esaldi hark ARGIAren etorkizuna baldintzatu zuen. Hilabete gutxitan Internet zer zen eta zertarako balio zuen jakin eta aldizkariko edukiak sarean jarri zituzten.

Sareko ARGIAren oinarria ARGIA astekaria izan da hasiera-hasieratik, nahiz eta gaur egun eduki desberdin ugari biltzen dituen atari bilakatu den. Lehendabizi 1963tik 1996ra bitarteko elkarrizketak jarri ziren Interneten eta 1999. urtetik aurrera astekari osoa. Orain arte, paperean argitaratutako edukiak jartzen ziren Interneten, gehienetan bestelako gehigarririk gabe. Otsailaren 23tik aurrera ordea, Interneteko ARGIA astekariak hainbat berrikuntza izango ditu.

Alde batetik, testu eta argazkiez gain, bideo, audio eta loturekin aberastuko dira artikulu, erreportaje eta elkarrizketak. Bestalde, astekariak web 2.0 deiturikoaren kontzeptuak bereganatu ditu eta ondorioz, parte hartzeko askoz ere aukera gehiago eskainiko ditu. Azkenik, artikuluak html bertsioan irakurtzeaz gain, pdf formatuan ere irakurri ahal izango dira eta atzeratutako edukien bilaketa erraztu egingo da.



Interneteko astekari berria, proba modura egindako hainbat iruditan.

Aldaketa horiek guztiak ARGIAko kazetariok bizi ditugun aldaketen ispilu baino ez dira. Hain zuzen ere, esparru multimediarako salto egiten ari gara eta ildo horretan egiten dugun lana hein handi batean www.argia.com/argia-astekaria gunean erakutsiko da.

Elementu multimedialak

2006. urtean, bideokamera besapean hartuta Boliviara joan ziren Txomin Txueka argazkilaria eta Amets Arzallus kazetaria. Haiek biak handik ekarritako materiala www.argia.com/bolivia kanalean bildu genuen. Bertan Ametsek idatzitako eguneroko batez gain, argazki galeria eta hamaika bideo osatu genituen, tartean Evo Moralesi egindako elkarrizketaren bideoa. Honela ARGIAk ikusentzunezko mundura salto egin eta kazetaritza lantzeko beste molde bat ezagutu zuen.

Orain, Interneteko ARGIA astekari berrian, testu eta argazkiez gain, bideo eta audioak ere aurkituko ditu irakurleak zenbait erreportaje edota elkarrizketatan. Modu horretan informazioa osatu eta aberastuko da.

Web 2.0, parte-hartzeko handiagoa

Azkenaldian jende askok hitz egiten du web 2.0 kontzeptuaz. Batzuentzat oraindik arrotza izan



Ezkerreko argazkian, Interneteko astekari berriko irudia. Eskuinekoan, Sareko ARGIA hastapenetan. Hasieran, 1963tik 1996ra bitarteko *Zeruko Argiako* eta ARGIAko elkarrizketak jarri ziren Interneten eta 1999. urtetik aurrera astekari osoa.

daitekeen termino horrek parte-hartze handi-
goa esan nahi du, baita hartzailearen aldetik
elkarreragiteko aukera handiagoa ere.

Ildo horretatik ARGIA astekari berriak 2.0
filosofiako zenbait tresna bereganatu
ditu. Besteak beste, artikuluei eran-
tzun eta berauek lagun bati bidaltze-
ko aukerak izango ditu, baita irakur-
leak gustuko dituen edukiak Zabaldu
(www.zabaldu.com) web gunera
bidaltzeko ere. Zabaldu Interneten
aurkitutako albiste interesgarrienak
zabaltzeko aukera ematen duen eus-
karazko gunea da. Internautek atsegin dituzten
albisteak bozkatzeko dituzte. Hala, irakurlea

informazio hedatzaile bihurtzen da, parte-har-
tzaile aktiboa, hain zuzen ere.

Informazioa eskuratzeko bideak erraztu dira

Internetek edukiak hainbat moduta-
ra irakurri ahal izatea ahalbidezen
du eta ARGIA berria horren adibide
izango da. Edukiak html edo pdf
formatuetan irakurri ahal izango
dira, atzeratutako edukiak zerbaki-
ren arabera sailkatuak egongo dira
eta baita dagokion atalaren arabera
ere. Adibidez, "Pertsonaia" atalean,

azken asteko elkarrizketa eta aurreko zerbakietakoak aurkituko ditu irakurleak. Bestalde, ohiko bilaketa aurreratuz gain, ARGIA astekariko egile eta elkarrizketatu guztien zerrenda ikusi eta irizpide horien arabera bilaketa egin ahal izango da.

Ezinbestekoa da bilaketak egiteko modua erraztea, ARGIAk gaur egun hemeroteca zabala baitu internauten eskura. *Zeruko Argiako* hainbat eduki ere aurki daitezke Sareko ARGIAren. Zehazki 1963-1998 urte bitarteko elkarrizketak eta 1999. urtetik aurrera kaleratutako zerbakietako eduki guztiak daude on-line. Gainera, hila-bete batzuk barru hemeroteca hori are eta opa-rogoa bihurtuko da, 1919. urtetik aurrerako eduki guztiak jarriko baitira sarean. ■

Testu eta argazkiez gain, bideo,
audio eta loturekin aberastu dira
erreportajeak, parte hartzeko
aukera areagotu da eta artikulua
pdf-n ere irakurri daitezke

Fitxa teknikoa

- ✓ URL: www.argia.com/argia-astekaria
- ✓ Programazio lengoia: PHP
- ✓ Datu basea: MySQL
- ✓ Web gunearen lengoia: XHTML
- ✓ Estiloak: CSS2
- ✓ RSS: 2005eko ekainetik ARGIA astekari-ko edukiak RSS bidez eskaintzen dira.

Jesús Jara Alfredo Mantovani

**EL ACTOR CREATIVO
LA ACTRIZ CREATIVA**

MANTOVANI JARA JARA



Bilatu liburuak edo www.libreriaorick.com eskura dezakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao

Tel: 944 795 287 / www.libreriaorick.com / info@libreriaorick.com

Alfredo Mantovani

EL ACTOR CREATIVO
LA ACTRIZ CREATIVA

